

BANDOA

AUTOENPLEGUA SUSTATZEKO DIRULAGUNTZA DEIALDIA

ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA ZABALIK

Goizuetako Udalak *“Goizuetan autoenplegua sustatzeko dirulaguntza banan-banako ebaluazio araubidean ezartzen duen ordenantza”* onartu zuen (NAOn argitaratua 2019ko irailaren 13an).

Dirulaguntza eskuratu ahal izango dute Goizuetan norberaren kontura azken 24 hilabeteetan jarduera ekonomikoa martxan jarri duten herritarrek; hau da, 2017ko urriaren 1etik jarduera ekonomikoaren gaineko zergan alta emana duten bizilagunek.

Dirulaguntza emango zaie Gizarte Segurantza eta Jarduera Ekonomikoaren gaineko Zergan izandako gastuengatik.

Eskabideak aurkezteko epea: urriaren 1-31 bitartean

Dirulaguntzaren oinarriak, eskabidea eta informazio gehiago www.goizuetas.eus web orrian eta udal bulegoetan (astelehenetik ostiralera, 9:30tatik 12:30tara).

Goizuetan, 2019ko irailaren 30ean

ALKATEA

Stua: Unai Miranda Berroeta